II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Leioako Udala

Leioako Langileria kalearen eta Txorierri auzoaren artean igogailu makurtua jartzeko proiektuan sartutako obrak kontratatzeko iragarkia.

Hona hemen prozedura honen oinarrizko datuak:

1. *Erakunde esleipenduna*
   a) Erakundea: Leioako Udala.
   b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Leioako Udaleko Kontratazio Saila.
   c) Espediente-zenbakia: 2018/4.

2. *Kontratuaren xedea*
   a) Deskribapena: «Leioako Langileria kalearen eta Txorierri auzoaren artean igogailu makurtua» jartzeko proiektuan sartutako obrak kontratatzeko iragarkia.
   b) Lotekako eta zenbakikako banaketa: Ez.
   c) Egiteko tokia: Leioako Udala.
   d) Egiteko epea: 9 hilabete.

3. *Esleipenaren izapidetzea eta prozedura*
   a) Izapidetzea: Arrunta.
   b) Prozedura: Irekia.

4. *Lizitazio-oinarriaren aurrekontua*
   — 2.160.796,05 euro (BEZa kanpo).

5. *Esleipena egiteko oinarri izango diren irizpideak: (gehienezko puntuazioa, 100 puntu)*
   — Balio-judizioaren mendeko irizpideak: (40 puntu arte):
      a) Obraren egikaritze teknikoaren irizpideak (25 puntu arte).
      b) Obraren antolakuntza eta jakinarazpeneko irizpideak (10 puntu arte).
      c) Obra gauzatu bitarteko ingurumen-irizpideak (5 puntu arte).
   — Era automatikoan ematen diren irizpideak (60 puntu arte):
      a) Eskaintza ekonomikoa (50 puntu arte).
      b) Elementu elektromekanikoen mantentze-lanen aldia handitzea (10 puntu arte).

6. *Behin-behineko bermea*
   Ez da eskatzen.

7. *Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea*
   a) Erakundea: Leioako Udala. Kontratazio Saila.
   b) Helbidea: Elexalde,1 (1.ngo solairua).
   c) Herria eta posta kodea: Leioa-48940.
   d) Telefonoa: 944 008 025.
   e) Faxa: 944 649 058.
   f) Helbide elektronikoa: erosketak@leioa.net

eek: BAO-2018a048-(II-1179)

g) Agiriak eta informazioa eskuratzeko epe-muga: Kontratazio organoak plegu eta dokumentazio osagarriari buruz eskatzen den informazio gehigarria (faxez edo posta elektronikoz) emango du gutxienez eskaintzak jasotzeko jarritako data muga baino sei egun aurretik, beti ere eskabidea aurkeztu bada kontratazio organoak pleguetan jarritako aurrerapenarekin, kontratuaren eta prozeduraren zirkunstantziak aintzat hartuz.

h) Erantzunak kontratugilearen profilean argitaratuko dira.

8. *Kontratistaren berariazko betekizunak*

a) J taldea (Instalazio mekanikoak), azpitalde 1 (jasotzaileak edo garraiatzaileak) 3 kategoria (360.000 euro baino gehiago eta 840.000 euro edo gutxiago).

b) K taldea (Bereziak), azpitalde 1 (Zimendatze bereziak), 2 kategoria (150.000 euro baino gehiago eta 360.000 euro edo gutxiago).

c) C taldea (Eraikinak), azpitalde 2 (Fabrika-egiturak edo hormigoizkoak) eta 3 (Egitura metalikoak), 2 kategoria kasu bietan (150.000 euro baino gehiago eta 360.000 euro edo gutxiago).

9. *Eskaintzak edo parte hartzeko eskabideak aurkezteko*

a) Aurkezteko epe-muga: berrogeita hamar egun natural, kontratazioaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Eskaintzak aurkezteko epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, berau hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: Ikusi baldintza-agiria.

c) Aurkezteko tokia:

1) Erakundea: Leioako Udala- udaletxea (Herritarrentzako Arreta Zerbitzua), goizeko 8:30etik eguerdiko 14:30era.

2) Helbidea: Elexalde, 1.

3) Herria eta posta kodea: Leioa-48940.

d) Lizitatzaileak eskaintza mantentzeko ezarritako epea: Ez da ezarri.

e) Aldaerak onartzea: Ez.

f) Parte hartzeko eskabideak aurkezteko modua: Ikus baldintza-agiria.

10. *Eskaintzak irekitzea*

a) Erakundea: Leioako Udala.

b) Helbidea: Elexalde, 1.

c) Herria eta posta kodea: Leioa-48940.

d) Data eta ordua: Interesdunei B eta C gutun-azalak irekitzeko data eta ordua jakinaraziko zaie.

11. *Bestelako argibideak*

Ikusi Baldintza Admnistratiboetako Pleguak eta Ezaugarrien koadroa.

12. *Baldintza-agiriak eskura jartzen dituen atari informatikoa edo webgunea*

http://www.leioa.eu/es/perfil_contratante.html

Leioan, 2018ko martxoaren 5ean.—Alkatea, M.ª Carmen Urbieta González

eek: BAO-2018a048-(II-1179)